

Eguberrietan gure inguru hurbilean abestu izan diren, baina gaur egun ohikoak ez diren gabon-kanten bila gabiltza.

Zuen etxean, familian, auzoan, aiton-amonei entzunda... abestu izan diren eguberri-abestiak grabatu eta bidaliezazkiguzue **TOBERA Musika-eskolara!**

Abesti horiek betiko gal ez daitezzen laguntzeaz gain, oparitxo bat jasoko duzu trukean.



ERRONKAREN BALDINTZAK

Jaso nahi ditugun abestiek ezaugarri hauek bete behar dituzte:

- **BERTAKOAK** Gure inguru geografikoan abestutako gabon-kantak izan behar dira. Ez dute balio beste toki batzuetan ohikoak izan, baina hemen ez direnek. Beraz, Bizkaiko Karrantza eskualdeko edo Nafarroako Malerreka eskualdeko kantak, esaterako, ez dira kontuan hartuko.
- **BETIKOAK** Gabon-kanta tradizionalak izan behar dira. Ez dute balio herri-tradizioa ez dutenek. Beraz, Javi Bustoren eguberri-konposizio garaikideak, esaterako, ez dira kontuan hartuko.
- **EUSKARAZ** Kantak euskaraz izan behar dira.
- Aldaerek ez dute balioko. Adibidez, ohiko kanta tradizional baten gospel moldaketa ez da kontuan hartuko. Kantak osorik edo zati handi batean grabatu.
- Hemen behean zerrendatutako gabon-abestiek **ez** dute balioko, ezagunak eta ohikoak direlako gure artean:

-ADESTE FIDELES

-AI HAU GAUAREN

ZORAGARRIA

-ALAKEN

-BIRJINA MAITE

-DIN DAN DON

-EGUARRI BEZPERAN

-ELURRA TEILATUAN

-GAUEKO IZAR

-GOAZEN GOAZEN GUZTIOK

-HATOR, HATOR

-HAUR EDER BATEN BILA

-HAURTXO MAITE

-HIRU ERREGE

-HORRA MARI DOMINGI

-JO TXISTU

-KANPAIAK JAIETAN

-KAS KAS KAS ATEAN /

KAX KAX ATARIAN

-LO DAGO GURE HAURTXOA

-MESIAS SARRITAN

-OI BETHLEEM

-OILARRA KANTA KANTARI

-OLENZERO BEGI GORRI

-OLENZERO BURU HANDIA

-OLENZERO JOAN ZAIGU

-URTARO ZURIKO EMAKUMEA

-ZER ZABILTZATE ARTZAINAK

Mutiloako, Segurako, Zegamako edo Zeraingo edozein herritarrek har dezake parte. Musika-eskolan aritu ala ez.

NOLA PARTE HARTU

Abestiaren **audioa** edo **bideoa** bidali TOBERAra:



• Instagram-etik pribatuan → kontuaren izena: @musikaeskola



• Facebook-etik pribatuan → kontuaren izena: /Tobera Musika-eskola



• E-maila idatzi eta bertara atxikita* → e-postaren helbidea: tobera@tobera.org
 (*) tamaina handiko fitxategia baldin bada, tori.eus webgunea edo WeTransfer erabilita egin dezakezu, esate baterako. Edo Drive, Dropbox... esteka partekatu.



Fitxategia bidaltzearekin batera, honako datuak eman, mesedez:

- Izen-abizenak
- Bizilekua (gogoratu Mutiloa, Segura, Zegama edo Zerain izan behar dela derrigor)
- E-mail helbidea edota telefono-zenbakia
- Bidali diguzun audioa edo bideoa publikoki zabaltzeko baimena ematen ote diguzun. Baimena emanez gero, musika-eskolaren ohiko kanaletatik hedatzeko aukera emango diguzu: sare sozialak, webgunea, eta antzekoak.

Epemuga: 2023ko urtarrilaren 8a, igandea

Jasotako audioak eta bideoak gure herrietako 3 ikastetxeen eta 3 abesbatzen esku jarriko dira, aurrerantzean beren dibulgazio-lanetan eta erreperorioetan barneratzeko aukera izan dezaten eta, hala, gabon-kanta horiek nolabait gordeta gera daitezten. Ikastetxe eta abesbatza horiek ez dute audio eta bideoon hedapen publikorik egingo, partaideak horretarako berariazko baimena eman ez badu.

Carrefour Goierri esker, esandako baldintza guztiak betetzen dituzten abestiak bidali dizkiguten hartzailleek detailtxo bana jasoko dute opari zuzenean, parte hartze hutsagatik (partaidetzak oparien kopurua gaindituko balu, zozketa egingo litzateke). TOBERA jarriko da zuekin harremanetan.

Baldintzak betetzen diren ala ez ebazteko garaian zalantzarik sortuko balitzaio TOBERA Musika-eskolari -batez ere abestiaren izaera tradizionalari edo tokikotasunari dagokionez-, herrietako abesbatzekin batera aztertuko luke egoera jakina.

Ekimen honetan parte hartzeak, ezinbestean, hemen jasotako baldintzak ulertu eta onartzea dakar berarekin. Halaber, izaera pertsonaleko datuen babesaren eta tratamenduaren inguruan indarrean den legeria betetzeko betebeharra bere egiten du TOBERA Musika- eta Dantza-eskolak.

S.O.S. >>> Os lanzamos el reto de recuperar villancicos antes de que caigan en el olvido.

Aprovechad las celebraciones familiares de estas Navidades para grabar en **video** o **audio** aquellas canciones navideñas que se cantan en vuestra casa, en familia, en el barrio, aquellas que habéis escuchado a vuestros/as abuelos y abuelas, y **enviádnoslas** a TOBERA Musika-eskola a través de nuestras redes sociales o por correo electrónico, indicando vuestro nombre y apellidos, lugar de residencia y dirección de e-mail y/o número de teléfono, también si permitís o no la difusión pública del video o audio enviado. A cambio, por gentileza de Carrefour Goierri, recibiréis un pequeño **detalle** por el mero hecho de participar en este reto colectivo, siempre y cuando el o los villancicos que nos enviéis cumplan las siguientes características [en caso de que la participación supere la cantidad de regalos, se sortearán]:

- Han de ser de nuestro entorno geográfico cercano
- Habrán de ser villancicos tradicionales o populares
- En euskara
- Con temática navideña
- Buscamos aquellas canciones que hoy en día están en desuso (consultad en la versión en euskara de este folleto el listado de villancicos excluidos)

Puede participar cualquier persona de Mutiloa, Segura, Zegama o Zerain.

Fecha límite para la recepción de villancicos: 8 de enero de 2023, domingo.

Los audios y vídeos recibidos se pondrán a disposición de los 3 centros escolares y de los 3 coros existentes en el ámbito de acción propio de TOBERA (Mutiloa, Segura, Zegama y Zerain), para que en adelante puedan integrarse en sus labores divulgativas y repertorios, respectivamente, de manera que estos villancicos queden salvaguardados de alguna manera. Eguberri on!



Antolatzailea:



TOBERA Musika- eta Dantza-eskola
www.tobera.org

Babesleak:

Mutiloako, Segurako, Zegamako eta Zeraingo Udalak



Laguntzaileak:

Aitxuri Herri-eskola [Zegama]
Laiotz Herri-eskola [Segura]
Zeraingo herri-eskola
Orkatz Abesbatza [Zegama]
Segurako Abesbatza
Uharka Abesbatza [Zerain]
Carrefour Goierri

Carrefour  **Olaberria**